

BALEIKE



ESTHER AIZPURUA

**HIRU
HAMARKADA
AIREAN**



ENDAÑETA
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

ZUMAIA TXARTELA

ERAMAN ZURE EROSKETA DOAIN

ZUMAIA VISA TXARTELAREKIN
ORDAINDUTA

Irailaren 7tik 24era
edo agortu arte.

*Gertu bizi,
Gertu erosi!!*





BALEIKE 323

2022-IRAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 4 **Hitz tantak** Jabi Gonzalez Toston
Jon Iñaki Sorarrain
- 6 **Hainbat aburu** Andoni Murga
Zenarruzabeitia
Eraldaketa posible da
- 7 **Errematea** Eire Maia Manterola
Kaiolatik kanpo
- 9 **Elkarrizketa** Onintza Lete Arrieta
*Esther Aizpurua: "Tartean behin
ondo etortzen da astindu txiki bat
hartzea"*
- 15 **Erreportajea** Maria Maya
Manterola
Motorrak norberaren gustura
- 20 **Erretratua** Juan Luis Romatet
*Zigor Etxabe, Ixaspe Kanpineko
langilea eta mendizalea*
- 25 **Heziketa** Mireia Centeno
Zigorra ez erabiltzeko arrazoiak
- 26 **Plazan bazan**
- 28 **Izpiak eta hizkiak** Arnaitz Rubio
Aprea
Maitane Arruti
- 31 **Zientzia eta ingurumena** Asier
Hilario Orus
Geoparkea aztergai
- 37 **Hamaika argi gure euskarari**
Imanol Azkue Ibarbia eta Dani
Carballo Ostolaza
*Euskararen argiak: batzuetan
txinpartak, besteetan kandilak*
- 43 **Agenda**
- 44 **Literatura** Antton Peñalba
Faith
- 45 **Nire txanda** Ander Intxaurrondo
Aditua
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Jarraitu geziari

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Jabi Gonzalez Toston

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus
**Administrazio
arduraduna**
Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Jon Iñaki Sorarrain

TESTUA: JABI GONZALEZ TOSTON

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Sukaldaria da Jon Iñaki Sorarrain Adrian (Zumaia, 1991), eta Leioako Ostalaritza Eskolan ikasketak amaitu zituenetik jatetxez jatetxe ibili da. 2020ko otsailetik Arzaken ari da lanean.

Zerk erakarri zintuen sukaldaritzara?

Txikitatik izan dut lotura sukaldaritzarekin. Arreba eta biok amonaren etxean hezi gaituzte, eta oso errotuta ditut prestatzen zituen jakiak. Eredu izan da niretzat amona. Dena den, ikasle pisuan jabetu nintzen benetan sukaldaritzara zela nire bokazioa. Ingeniaritza hasi nuen, baina sukaldean sartuta ibiltzen nintzen beti; pisukideei jatorduak prestatzeak betetzen ninduen. Horregatik, karrera utzi eta sukaldaritza ikastea erabaki nuen.

Hainbat aukera aztertu ondoren, Leioako Ostalaritza Eskola aukeratu nuen, bertako irakasle zumaier batekin hitz eginda [Ibon Urangarekin].

Arzakera iritsi arte hainbat jatetxe pasatu dituzu.

Ohikoa izaten al da sukaldarien artean horrenbeste mugitzea?

Bai. Askok mugitzeak ez du esan nahi lan ondo egiten ez duzunik edo sukalde horretan ez zaudenik gustura. Sukaldariari komeni zaio produktuak lantzeko modu desberdinak ezagutzea, eta horretarako, bidea egin behar da. Hasiberriei ere horixe esaten diet, *esponjak* izan behar dutela. Nik Marina Berrin egin nituen praktikak lehendabizi (gerora berriro itzuli nintzen birritan), Ezkaraiko Etxaurren jatetxean ere aritu nintzen praktikan, Elkanon, Bilboko Porruen... Guztietan ongi amaitu dut, eta gomendio onak eman zizkieten Arzakeko arduradunei nitaz galdetu zutenean.

Zer da Arzak bezalako jatetxe batean lan egitea sukaldariontzat?

Jatetxe guztietan egiten da lan presiopean, erlojuaren kontra aritzen gara beti, baina Arzakek ez du zerikusirik aritu naizen gainerakoekin alderatuta. Ez da sukaldaritzara arrunta: bezeroei

esperientzia berezia eskaini behar zaie elikatzeaz haratago. Xehetasun txikiena ere zainduta dago; baxera bera edota zerbitzarien mugimenduak ikuskizunaren parte dira. Dena den, horrek ez du esan nahi langileok baldintza eskasak ditugunik, hori ere zabaldu baita. Egia da ikasketak amaitu berri dituzten sukaldari asko daudela, baina sekulako eskola delako haientzat. Gainera, iruditzen zait gero eta gehiago zaintzen dela langileen ongizatea. Azken finean, izen handiko jatetxeei euren irudia zaintzea komeni zaie.

Aurrera begira, zer urrats egin nahiko zenituzke? Zure jatetxea zabaltzea, agian...

Ez. Hala ere, aitortu behar dut Etxaurrenen nenbilenean izan nuela burutapen hori. Gaur egun, ordea, erabat baztertu dut. Hazten jarraitu nahi dut, ilusiorik ez dut-eta galdu. Nagoen tokian oso pozik nago, garrantzitsua sentitzen naiz eta baloratu egiten dute nire lana. Gazteenei erakustea ere oso gustuko dut, baina ez nuke irakasle izan nahi, momentuz.

Sukalde batean zer da garrantzitsuen?

Bi alor azpimarratuko nituzke, bereziki: ilusioa eta kidetasuna. Lana aurrera ateratzeko egiten duzuna gogoko izan behar duzu, eta ikasteko motibazioa ere ez da galdu behar; bestela, akabo. Gero, sukaldean ordu asko egiten ditugunez, oso garrantzitsua da langileon arten giro ona izatea.

Sukaldaritzaz harago baduzu beste zaletasunik, ezta?

Bai, arrantza. Sukaldaritzak berak baino gehiago betetzen nauela esango nuke. Tarteetan dudak bakoitzean haitzetara joaten ahalegintzen naiz. Naturarekin erabat lotuta sentitzen naiz arrantzan.

Sukaldean ere nahiago duzu itsasoko produktuekin aritu?

Ez dit axola, produktu orori diot errespetua. Hori ere amonarengandik ikasia. Barazki zein animaliei, guztiei atera behar zaie etekin handiena. Haiei eskaintzen zaion omenaldia da sukaldaritzara. ■■■





Eraldaketa posible da

Ume koskorrek badakite pilota etxeko leihotik behera botatz gero lurra joko duela. Naturan ezagutzen ditugun lau oinarrizko elkarrekintzetako bat den grabitazioak eragiten du lurreko gorputzen erorketa. Masadun gorputzen arteko elkarrekintza hori grabitazio unibertsalaren legeak azaltzen digu.

Hilero etxeko kontuak egindakoan, zumaiar langileok ere badakigu 2008tik hona erosahalmena galtzen ari garela. Gure soldatak prezioak baino askoz gutxiago igo direla konturatzearekin batera, Repsoli eta Iberdrolari entzuten diegu beren mozkinen biderkapenaren aldarrikapen lizuna egiten. Eta egongo da desberdintasunak areagotuz langileria pobretzen duen eta handikiak aberasten dituen

egoera merkatuaren legeen arabera azalduko digunik.

Horrenbestez, fenomeno sozioekonomikoak naturalak bezala halabeharrezkotzat jotzeko joera oso hedatua dago. Haatik, grabitazioaren legea eta merkatuaren legeak ez dira baliokideak. Langile klasea txirotzen duena eta planeta kolapsora daramana bidegabea, bideraezina, suntsitzailea eta harrapakaria den sistema kapitalista da, eta hau ez da saihestezinak diren naturaren legeen emaitza, baizik eta pertsonon hautuen eta hartzen ditugun erabakien ondorio. Udatik bueltan, aurretik genituen arazo eta erronka berberak izango ditugu ate joka: larrialdi klimatikoa, gerra, pandemia, egiturazko krisi ekonomikoa, inflazioa, zerbitzu publikoen eta ondare

komunaren erauspena eta pribatizazioa, desberdintasunak, pobrezia, goseteak, lan eta bizi baldintzen prekarietatea, autoritarismoak, matxismoa, arrazakeria, xenofobia, demokrazia eza...

Gure errealitatea ezaugarrituko duten horiek guztiak gu beldurtzeko mamuak bailira astinduko dizkigute komunikabide gehienetan, izutua dagoen jendarte manipula erraza bilakatzen baita eta, otzanki, egoera honetara ekarri gaituzten eta sistema kapitalista bera eta bere ajeak erreproduzitzera datozen neurrien enegarren bertsioa salbatzaitzat har ditzakeelako.

Errotik aldatu beharrekoa sistema bera da: desarrollismo, produktibismo eta kontsumismo eroen bidetik

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



EIRE MAIA MANTEROLA

baliabideetan mugatua den planeta suntsipenera daraman sistema "ekoizida"; lan eta bizi baldintzen prekarietatean sakonduz krisiaren faktura langileriarri ordainarazten dion sistema bidegabea; herritarren bizitzak eta herrien burujabetzak oligarkien interes geopolitikoaren eta eliteen pribilegioen mesedetan hondatzen dituen sistema inperialista, kolonialista eta belizista; mugak militarizatu eta migratzaileak kriminalizatzen dituen sistema xenofobo eta arrazista; biztanleriaren erdia diskriminatu eta bazterten duen sistema heteropatriarkala. Alegia, bizigarria ez delako bideraezina den sistema.

Grahitazioarena bezalako teoria eta lege zientifikoaren gezurtatzea ia ezinezkoa bada ere, egun hegemonikoa den

sistema ekonomiko, politiko, ideologiko eta kultural kapitalista, giza eraikina den heinean, inpugnatu daiteke.

Ikara, nagia eta erosotasuna uxatuz, gurea da erabakia. Aldaketaren noranzkoa da jokoan dagoena. Bizitza eta Kapitalaren arteko etengabeko gatazkan, natura eta bizitza erdigunean jarriko duen alternatiba eraiki dezagun. Euskal Herrian posible da luraren muga biofisikoak aintzat hartuz, bazterkeria eta diskriminazio oro ezabatuz, enplegua, zaintza eta ondasuna banatuko duen egitasmoa eraldatzailea eraikitzea. Izan ere, gure lurtean, euskal nazio proiektuari loturik, lan eta bizi baldintzen aldeko borroka burujabetzaren eta independentziaren aldeko borroka delako. ■

Kaiolatik kanpo

Badakigu nondik gatozen, baina nola jakin nora goazen? Soilik kapitala erdigunean jartzen den honetan, non kokatu geure burua? Gizarte honetan helmugarik gabeko etengabeko lasterketan gabiltza, hor tartean, nonbait, gure lekuarekin topo egingo dugun zorian. Mila bide gure oinen pausoetan, baina nola iritsi izan nahi dugun horretara? Oso erraza da hutsunearen zuloan erortzea, ezerezean.

Ezarri zaigun bide hartatik urruntzean, identitate krisi batean murgiltzen gara. Beti helarazi izan digute mezu bera, zer koadrotan mantendu behar garen eta nola jokatu behar dugun. Horregatik, aurretik izandakoa deseraikiz eta izan nahi duguna abiapuntutzat hartuz sortzen dugu gure etorkizuneko pertsona, marea eta korronte nagusitik ihesiz.

Mugitzen ez denak kateak sentitzen ez dituela diote, gizartearen kaiolatik haratago dagoen ortzi muga baita hainbatek jarraitzen duguna. Askotan, gu geu izatea sistemaren aurka borrokatzea da, eta horrek erakusten digu bidea zein den, nahiz eta askotan bere ordaina izan. ■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



Aita Mari JATEETXEA ZUMAIA

☎ 679 10 31 67

📍 Juan de Zigarán, 1
Zumaia

@aitamarijateetxea@gmail.com

f t i



AIZPURUA RUDENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama taberna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com


Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe · Horiz Klinika



Árdantzabide, 3 behea • Zumaia

☎ 943-54 35 70 • 📠 688 73 38 56



OKINDEGIARTEKU

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Árdantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa	Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa	Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika	Motorraren mekanika
Piztea	Hotze sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



943-53 03 97
688 71 26 21

Kantauri 2, behea
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es



finés, frantses, euskara, ingeles, espagnol, katalanar, suomi, basc, català, limosa, frantses, anglès, catalan, francès, castellan, frantsès, anglès, basc, catalan

bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitoria Ikaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadiclinivet.com
www.basadiclinivet.com

Golez: 11-13 / Arratsak: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia

Larriak/leitarako: 605 72 87 07 Elbez etxeko zerbitzua



BASUSTA erretegia · asador

José Blázquez

Palxita Ekezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



EDU ZUMAIKO OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16

"Tartean behin ondo etortzen da astindu txiki bat hartzea"

ESTHER AIZPURUA IRRATI ESATARIA

Etxeko sukaldean Mariano Ferrer zenaren hitz jariora eta haren azalpenak entzunez gosaltzen zuen txikitan Esther Aizpurua (Zumaia, 1970) kazetariak, eta berea bokaziozkoa ez dela irizten dion arren, 30 urtetik gora daramatza irratiari lanean, urte gehienak Euskadi Irratian, eta azken zazpiak Radio Euskadin.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Ahots atseginekoa eta ideiak zehaztasunez eta egoki adierazten dituenetakoa da Esther Aizpurua irrati esatari zumaiarra. Nafarroako Unibertsitatean Kazetaritza ikasketak amaitu aurretik hasi zen praktikak egiten Euskadi Irratian, eta kate publikoan han jarraitu du ordutik; hiru hamarkada baino gehiago. Azken urteetan Radio Euskadin ari da, entzuleak gaztelaniaz informatzen eta entretenitzen, eta bere ibilbideaz nahiz egungo kazetaritzaren kalitateaz jardun du solasean lanera sartu aurretik, kafe beroa hartu bitartean.

Bi hamarkada baino gehiagoz euskaraz aritu zara irratiari; azken zazpi urteetan, gaztelaniaz. Euskaraz eta gaztelaniaz, kazetari bera al da Esther Aizpurua?

Ni erabat elebiduna sentitzen naiz; bietan daukat erraztasuna. Nire lana, berriz, aldatzen da, bai: unibertsoa aldatzen da. Euskarazko unibertsoan, euskaraz arituta, puntu bateraino irits gaitezke euskal hiztunekin. Radio Euskadin lanean hasi nintzenean, esan nuen: aiba! Zenbat jende

elkarrizketatu dezakedan! Turkiaren enbaxadorea Espainian: hori eskatu dezakegu, gaztelaniaz badakielako. Gaztelaniaren unibertsoa zabala da. Hogei urtetik gora Euskadi Irratiako programetan lan egin izan dut, eta beti zailagoa izan da adituak aurkitzea.

Eta are gehiago duela hogeiei urte, ezta?

Zalantzarik gabe. Gaur egun mediku, dietista, dermatologo... euskalduna aurkitzea oso erraza da, gazte jendeak, zorionez, euskaraz ikasi duelako eta formaziodun jende asko dagoelako, zientzia munduan, edozein esparrutan, euskaraz ondo dakiena. Orain 20-30 urte, ni hasi nintzenean, oso zaila zen. Askotan gertatzen zitzaigun gai bati buruz hitz egin nahi edo zerbait kontrastatu nahi, eta ez genuela euskal hiztunik aurkitzen. Edo aurkitu bai, baina Google gabe. Pentsa...

la ahaztu zaigu nola egiten zen hori...

Bada, pentsa, telefono-aurkibidea hartu, euskal abizenak aurkitu, edo ezagunengana jota: 'nire amak ezagutzen du dentista bat euskaraz badakiena', horrela. Gogoan dut *Egunkaria*-k

urtero argitaratzen zuela agenda bat, Euskal Agenda uste dut deitzen zela, artista, musikari, eskultore eta abarren telefonoekin; asko-asko erabiltzen genuen hori.

Baina, zeu aldatzen ote zara euskaraz edo gaztelaniaz komunikatzen?

Ez. Niretzat aldatzen den bakarra da errazagoa dela hiztunak aurkitzea gaztelaniaz arituta.

Iritsi da iraila, eta martxan dira ikasturte berriko programak. Non entzungo zaitugu?

Aurten, arratsaldez programa berria hasi du Radio Euskadik, *Distrito Euskadi* izeneko magazina, 16:00etatik 19:00etara. Estibaliz Ruiz de Azua da zuzendari eta esatari nagusia, eta programa horretan nago. Uda aurretik esan ziguten iraillean jarraitu egingo zuela irratsaioak. Lankide guztiak daude Bilbon, eta ni naiz Gipuzkoako ahotsa.

Programetan egin dituzu urte gehien, baina informatiboetan ere batzuk bai. Zer duzu nahiago?

Ibilbidea osotasunean hartuz gero, gutxien informatiboetan aritu nintzen, baina asko gozatu nuen. Eta, orain bertan esango balidate bihar informatiboetara joan behar dudala, ez nuke batere penarik hartuko, tartean behin ondo etortzen delako astindu txiki bat eta beti egiten ari zaren hori utzi eta beste zerbaitetan hastea. Hainbat programatan aritu izan naiz, toki desberdinetan eta ardura desberdinekin, goizez zein arratsaldez, eta uste dut ona dela pixka bat denetarik probatzea, baita besteen tokian jartzeko ere. Esaterako, kaletik ari zarenean lanean, mila gauza gerta daitezke, eta batzuek ez dute hori probatu, eta erredakziotik eska ditzakete hau eta bestea, jakin gabe nolakoa den kaleko lan hori.

Kaleko lan hori aipatu duzunez, esan digute zure aurrenetariko Anoetaren inaugurazioa izan zela, ezta?

Anoeta 1993ko irailan inauguratu zuten. Ni 1992an hasia nintzen irrastian, eta gogoan dut *Kaixo Anoeta* izeneko irratsaioa egin genuela Euskadi Irrastian. Nekane Peñagarikano zegoen programa zuzentzen estudioan, eta kalean geunden bizpahiru lagun. Hura izan zen kaleko nire lehen konexioa. Furgoneta handiarekin joan ginen. Zuzeneko a egin behar, arrastorik ez zer esan behar nuen, jendeari iritziak grabatu, teknikoak bidali estudioara... Pentsa, orduz gero Anoeta berri dute –gero egin zioten bueltako pista– eta orain berriro Reale Arena bezala inauguratu dute. 1992an hasi eta irail hartan, berriz, Zinemaldian izan nintzela ere gogoan dut, bekadun bezala. Ez nuen gauza handirik egin, baina niretzat izugarria izan zen jendeak lan nola

egiten zuen ikustea. Maria Cristina hotelera sartu, eta hango sarreran ikustea komunikabide bakoitzak nola zeukan bere mahaia eta nola egiten zuten lan... Begoña del Tesorekin akordatzen naiz, eta baita Felix Linaresekin ere; gogoan dut ikusi nuela ordu erdiko jarduna egiten batere paperik gabe. Zer buru zeukan –gaur egun ere bai, gure programan kolaboratzen duelako–, nola egiten zituen pelikulen kronikak...

Zurea erabat bokaziozkoa da...

Beti izan naiz hiztuna eta saltsera, eta letrak asko gustatu izan zaizkit, historia ere bai... Baina ez dizut esango 8 urterekin esaten nuenik kazetari izan nahi nuela. Gaur egun bai, asko gozatzen dut lanarekin. Irratiak, gainera, ematen dizu jende asko ezagutzeko aukera. Ez ezagunak bakarrik, edozein baizik; herri guztietan dago zer kontatua duen jendea, eta aberastasun handia da alde horretatik. Mila modutako jendea dago, eta mila modutako sorpresak hartzen dituzu irrastian, gehienak onak.

Etxean ohiturarik bazenuten irrattia entzuteko?

Bai bai. Gure etxean irrattia beti izan da sukaldeko erregina. Egun osoa piztuta egoten zen. Gogoan dut 6-8 urterekin Mariano Ferrer egoten zela hizketan goizetan. Prentsa irakurketa egiten zuen *El quiosco de la Rosi* saioan, eta gogoratzen naiz gosaritan amari esaten niola: ‘Ama, baina gizon hau noiz jaikitzen da?’. Askotan gogoratzen naiz; nork esango zidan gero neu 05:00etan edo 02:00etan lanera sartuko nintzela irrattira...

Irrati esatari bat baino gehiago aipatu duzu. Egon da bateren bat bereziki lagundu dizuna edo bereziki erreferente izan dena?

Euskadi Irrastian hasi nintzenean Jaime Otamendiren taldean hasi nintzen, eta orduan oso jende ona zegoen talde hartan: Arantxa Iturbek eta Jaimek elkarrekin egiten zuten goizeko programa, *Goizean behin*. Nekane Peñagarikano, Ane Albisu, Manu Etxezortu, Tere Beloki... horiek zeuden goizeko talde horretan. Gero haurdun gelditzen hasi ziren taldeko emakumeak, eta amatasun bajengatik lan asko egin nuen eta asko ikasi nuen. Programa oso garrantzitsua zen, euskal gizartean pisua zuten gehienak hortik pasatzen ziren.

Hiru hamarkadatan kazetari batek kontatzeko albiste eta gertaera inportante asko pasatzen dira. Zein azpimarratuko zenituzke?

New Yorkeko Dorre Bikiena historikoa izan zen, noski. Arratsaldeko programan nengoen, *Lauretan Babel* zuen izena. Bazkaltzera 14:30





Esther Aizpurua, Donostiako Zinemaldiaren inguruan egindako irratsaioan. UTZITAKOIA

"ASKO GOZATZEN DUT LANAREKIN. JENDE ASKO EZAGUTZEN DA, ETA ABERASTASUN HANDIA DA HORI"

"JENDE ASKOK HARRITU NAU ONERAKO; RUPER ORDORIKAK, ADIBIDEZ. OSO HURBILEKOA DA"

"1994 INGURUAN ZUZENKO KONEXIOA EGIN GENUEN INTERNET ZER ZEN AZALTZEKO ENTZULEEI"

aldera jaitsi ginen, 16:00etan hasten zen programa, eta Odile Kruzeta jaitsi zen, informatibo burua zen orduan, eta esan zigun istripu arraro bat gertatu zela –hegazkin batek Dorre Bikietako bat jo zuela–, eta adi egoteko, igual programa aldatu beharko genuelako. Handik minutu gutxira jaitsi zen berriz, esatera dena aldatu behar zela, bigarren hegazkinak bigarren dorrea jo zuelako. Inork ez genekien zer izan zitekeen hura, eta gogoan dut Mikel Aramendi nazioarteko aditua orduan ere astean behin etortzen zela gure irratsaioa, eta Mikeli deitu genion. New Yorkera ere deitu genuen Olatz Arrieta berriemailearekin hitz egiteko, baina telefono linea guztiak kolapsatuta zeuden, eta ezin ginen komunikatu. Mikel etorri zen eta hura izan zen lehendabiziko aldia Bin Ladenen izena entzun genuena. Akaso bera izan zitekeela esan zuen Mikelek, eta Afganistango kontuak kontatu zizkigun. Hiru orduko programa egin genuen ahal genuen bezala. Hori 2001ean izan zen, eta gutxira, 2003ko otsailean, *Egunkaria* itxi zuten.

Hori ere gogoan iltzatuta daukazu, ezta?

Bai, noski. Izugarria izan zen hura. Erabateko danbatekoa izan zen, programa erabat aldatu

genuen, eta orduko manifestazioa, itxieraren kontra Donostian egin zena, historikoa izan zen. Han ez zegoen ez kolorerik ez partidurik. Han geunden... ia denok. Oso atzera begira, horiek dira gertakari historikoak. ETaren jarduera armatuaren amaieraren behin betiko iragarpen hartaz ere gogoratzen naiz, oso egun seinalatua izan zen. Arratsalde batean izan zen. Orduan informatiboetan nengoen, eta gogoan dut zer espektazio zegoen. Mila telebista piztuta geneuzkan, BBCK bideo hori soltatu zain, ordurako bagenekien zer zetorren, iragarrita zegoelako, ordurako *Berria*-k esan zuelako. Sekulako ikusmina zegoen: nola agertuko dira, zein, zer esaten... historikoki esan nahi zuen guztiarekin, gainera.

Zuzenekoren batean inoiz emozionatu al zara?

Bai. Elkarrizketatuak bizipen gogorrak kontatzen dituenean, batzuetan kostatu izan zait emoziorai eutsi eta jarraitzea. Adibidez, COVID-19aren zurrunbiloan oso sartuak ginenean, Andoni Luis Adurizekin [sukaldaria] hitz egin genuen. Bere ama COVID-19ak jota hil zen, eta polita zen nola hitz egiten zuen amaz, esanez beti izan dela oso emakume gogorra eta borrokalaria, baina ezin izan zuela ama agurtu. Beste asko bezala, ama ZIUn, bakarrik hil zen horietakoa izan zen. Ezin eskutik heldu, agurrik esan... Hori nola kontatzen zuen, amak zer bizitza gogor izan zuen eta heriotza hori izateak zer pena ematen zion...

Badago harritu zaituen gonbidaturik, bere hizketarako gaitasunagatik edo beste zerbaitengatik?

Jende askok harritu nau onerako. Irratian hasiberria nintzela, gogoan dut Ruper Ordorika etorri zela disko berria aurkeztera. Elkarrizketa nik prestatu nuen, ordurako handia zen Ruper, eta gogoan dut zer pertsona hurbila eta apala iruditu zitzaidan. Eta orain, duela urtebete edo elkarrizketatu dut berriz, Bilboko Kafe Antzokian grabatu zuen disko baten harira, eta pentsatu nuen berdin-berdin jarraitzen zuela. Izen handiko norbait izan da gure artean, oso errekonozitua, eta beti ikusi izan dut pertsona hurbila, parez pare ikusten zaituena eta hala hitz egiten dizuna.

Bitxikeriarik ere izango duzu kontatzeko...

Begira, badaukat bat. Gaur egun ezin dugu sare sozialik gabe bizi, eta den-dena Google bitartez egiten dugu, eta sareek eskaintzen diguten guztiarekin egiten dugu lan. Horrekin lotuta, gogoan dut Euskadi Irratia Larramendi kalean zegoenean, 1994-1995a izango zen, konexio berezi bat egin genuela Internet zer zen esplikatzeko.

Pentsa! Gaur barregura ematen du, baina orduan, *Goizean behin* programan nenbilen, eta Jaime Otamendik esan zigun goiz batean: 'Badago gauza bat gero eta gehiago erabiltzen ari dena, Internet izena duena'. Non zegoen gauza hura? Inork ez geneukan, irratan ere ez zegoen, ordenagailu batzuk bazeuden baina Internetik ez, eta joan nintzen Koldo Mitxelena liburutegira, han bazegoelako ordenagailu bat delako Internet bazuena, eta hango arduradun batekin konexioa egin genuen, eta hark azaldu zidan zer zen Internet. Eta guk, ezin ulertu. 'Baina zer aukera ematen ditu?', galdetu nion, eta esan zidan, adibidez, New Yorkeko denda batean sartzeko aukera ematen zuela, denda horretan zegoena ikusteko... Askotan akordatzen naiz anekdota horretaz.

Azken urteetakorik?

Berriki-berriki, gure Pello Zabala hil da, Kandelaria egunean, otsailean. Pello irratan izan da denontzat laguna batez ere, eta oso pertsona maitatua, eta denetik zekiena. Aurten, bagenekien gaixo eta pattal zegoela, eta akordatzen naiz arratsaldean lanean nintzela iritsi zela bere heriotzaren berria. Egun hura ere berezia izan zen, jende askok idatzi eta deitu zuelako, baita audioak bidali ere, emozionatuta, baita Radio Euskadin ere, eta horrek harritu egin ninduen, uste nuelako Pello batez ere zela erreferente Euskadi Irratiko entzuleentzat, baina Radio Euskadin ere jende askok bidali zituen audioak.

Beste irratia entzuteko ohiturarik baduzu?

Bai. Beste komunikabideak asko jarraitzen ditut, batez ere irratia. Guk egiten duguna ezagutzen dut, baina besteek egiten dutena jakitea ere inportantea da, asko ikasten da: nola egiten duten, zer kontatzen duten, zenbat denbora eskaintzen dioten gauza bakoitzari... Mundua ezagutzea bezala da: besteak nola bizi diren eta zer kultura duten ikustea, bat egin ala ez kultura edo irizpide horiekin.

Zer irrati duzu gustukoen, kalitate gehien zeinek du?

Ser azpimarratuko nuke; hori da nire erreferente ezbaierik gabea. Radio Nacionalen ere badaude zenbait programa eta esatari... Niretzat Angels Barcelo, bere garaian Iñaki Gabilondo...

Beste hainbat lanbidetan bezala, kazetaritzan ere ez da erraza lana bizitza pertsonalarekin uztartzea...

Nik aukera izan nuen, eta aukeratu egin nuen, umeak izan nituenean lanaldi erdia hartu eta asteburuetan lan egiteko. Gutxiago irabazten duzu, beste gauza batzuk galtzen dituzu, baina



Esther Aizpurua, bere jaioterrian. Azpeitian bizi da gaur egun.

aukera hori egin nuen, eta hori gomendatzen diet haurdun dauden lankide guztiei. Zoritxarrez, lanbide guztiek eta lanean ari diren guztiek ez dute aukera hori. Lau urtez aritu nintzen lanaldi erdian. Kazetaritzak ordutegi txarrak dituela? Bai, baina erizain batek, mediku batek, beste hainbat ofiziotik ere oso ordutegi aldrebesak dituzte, eta beharbada gureak baino okerragoak eta luzeagoak. Bestalde, emakumeak gara gure profesioari urte batzuek nolabait uko egin behar diogunak oraindik ere. Europako beste zenbait herrialdetan ordaindutako amatasun baja hamasei hilabetekoa da, eta gu lau hilabeterekin bueltatzen gara, hala moduz. Askok dago egiteko hor.

Interneti buruzko anekdota kontatu duzu. Lehen irratia zen komunikabide azkarrena telebistarekin eta egunkariekin alderatuta; gaur egun, hor daude komunikabide digitalak.

Nik uste dut irratia eusten diola azkartasun horri. Errazago du notizia gertatzen den tokira iritsi eta

han bertatik sartzea irratia. Gaur egun, gainera, teknologikoki ere oso aurreratuta gaude. Quantum izeneko aparatuekin egiten ditugu zuzeneko emanaldiak kaletik. Gogoan dut aurreneko kontakizuna, praktikan nabilenean, telefono kabina batetik egin nuela, txanponak sartu eta sartu. Gero, kalera ateratzen ginenean, unitate mugikorrarekin ibiltzen ginen. Furgoneta handi bat izaten zen, antenaz jositakoa, eta teknikoak esaten zigun herri bakoitzean zer partetan kokatu behar ginen, inguruko mendien eta antenen arabera. Gaur egun, unitate mugikorra ere erabiltzen dugu, baina izaten da goiz osoa pasatu behar badugu, adibidez, santotomasetan eta halakoetan. Gainerakoan, Quantum horrekin joaten gara. Maleta txiki bat da, eta wifia ondo dabilen tokian ederki funtzionatzen du. Eta, kalitatea... Ia estudiokoa bezalakoa da. Azkeneko elkarrizketa asko kaletik, bai zuzenean, bai grabatzeko, horrela egin izan ditut. Bertan editatu, eta zuzenean hizketan ari naizela korteak bertatik sartzen ditut, aparatuari *play* emanda. Hainbeste erraztu da hori guztia... lehen, ezinezkoa zen.

Irratiaren teknologia aurrerapen hauek noraino iritsiko ote dira?

Ez dakit... Lehen gure lana zen gidoia prestatu, mikrofono aurrean esan eta produzitu; hau da, elkarrizketak, pertsona berriak... aurkitu... Gaur egun edukiak sortzen ditugu, eduki horiek webgunera geuk igotzen ditugu, webgunean ez bazaude ez zarelako existitzen, eta geroz eta gehiago bideoak ere egiten ditugu ez dakit nor elkarrizketatu badugu eta gero hori webgunera igotzen dugu. Baina, horrez gain, Instagramerako *story* txikiak egiten ditugu. Badugu lankide bat horretan oso abila dena, eta berak bakarrik elikatzen ditu sare guztiak: Instagram, Tik-tok... Jende asko ere sare sozialen bidez kontaktatzen dugu.

Informazioaren munduan dena doa azkar, dena da bat-batekotasuna. Kalitateari eragiten al dio?

Askotan aipatzen da ez ote garen arinkeriatan erortzen, baina nik uste dut kalitatean ere hobetu egin dela. Arrisku hori badago: batzuetan arinkerian geratu, eta gauzak oso azaleatik eta oso azkar esatekoa. Baina uste dut gauzak hobeto kontatzen direla orain, bai kalitate aldetik, bai eduki aldetik. Azkarrago bai, baina oro har, onak eta txarrak kontuan hartuta, onak dezentez gehiago pisatzen duela uste dut. ■■■



Motorrak norberaren gustura

Apartekoak dira Zezen Motors garajetik ateratzen diren motorrak. Bakarrak. Gainerako garajeetan bezala, konponketak eta mekanika lanak egiten ditu Daniel Rodriguez Torok, baina motozikleten kustomizazioak eta pertsonalizazioak egiten dute berezi garaje hori.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Bi gurpilen gaineko artelanak ikus daitezke errepideetan zehar, bizkor, eder, zaratsatu, burrunba batean, haizeari aurre eginez eta motorrari ahalik eta zuku handiena ateratzen. Fabrikatik ateratako produktuarekin nahikoa ez, eta ibilgailuak

personalizatu ere egin nahi izaten dituzte motorzaleek, margotuz, elementuak gehituz, berezi eta bakar bihurtuz. Egokitzapen lan horietan abilezia ez duten motorzaleek mekanikoen laguntza behar izaten dute motorra bere egiteko.

Kustomizatzeko lan horietan aritzen da, adibidez, Toro izengoitiaz ezagunagoa den Dani Rodriguez zumaiarra. Zabalik du dagoeneko motorrak bezeroen gustura egokitzen dituen Zezen Motors garajea, Joxe Mari Korta industrialdean. Rodriguezek duela lau urte hartu zuen lokala, eta negozioa zabaldu aurretik, lagunei eta ingurukoei konponketa lan txikiak egiten aritu da.

Estazioko auzoan zuen garaje batean hasi zen Toro bi gurpildun ibilgailuak personalizatzen, duela hamarkada bat. Mekanika lanak eta konponketak egiten jarraitzen du, baina personalizazioak eta egokitzeak bereizten du Zezen Motors garajea gainerakoengandik. Personalizatzearena, akaso, berria izango da Euskal Herrian, baina Alemanian, Herbehereetan, Ingalaterran eta Frantzian hamarkadak daramatzate ibilgailuak norbere gustura egokitzen, Rodriguezek azaldu duenez.

Scooter erakoak, kiroletakoak, klasikoak, trail-ak... Oro har, halako garajeetan motor handiak ikusten dira, baina askotariko tamaina, kolore eta eratako motorrak ikus daitezke Rodriguezen. Garajera sartu orduko, bi aldeetan txukun lerrokatuta ditu guztiak, eta pasillo bat uzten dute erdian. Edonola ere, gainerako arloetan bezala, "joan eta etorri egiten diren modak" daude motorrenean ere.







Tororen ustez, kiroletako motor japoniarrek izan dute sona azkenaldian. Baina, modak aldatzen joaten dira: duela bospasei urte arte Harley Davidson itxurako motor baxu eta zabalak zeuden modan; orain, berriz, Cafe Racer estiloko motorrak.

"Lehengora itzultzen"

Bere garajeen nagusi diren motorren jatorriaz aritu da mekanikoa: Ingalaterran dute jatorria Cafe Racer estiloko motozikletek, eta 1960ko hamarkadan egin ziren ezagun, hamarkada horren erdialdera Ingalaterrako Brighton hirian izan ziren, eta *Quadrophenia* filmaren bidez publiko zabalago batentzat ezagun egin ziren, *moden* eta *rockeren* arteko liskarretan, hain zuzen. *Mod*-ak neurrira egindako jantziak soinean zituztela eta ispiluz jositako Vespa eta Lambretta markako motorren gainean ibiltzen ziren; *rockere*k, aldiz, Triumph-ak zituzten gogoko. Herri kondairaren arabera, kafetegietatik kafetegietara abesti batek iraun bitartean egiten zituzten lasterketek eman diote izena gaur egun modan dagoen bi gurpildun ibilgailuari. "Lehengora



itzultzen" ari da motor estiloen moda, retro itxura horretara, Tororen esanetan.

Bezeroak ideia batekin joaten zaizkio Torori. "Interneten argazkiak bilatzen dituzte, eta halako fokoa edo eskulekua behar dutela azaltzen didate", dio. Nolanahi ere, azaldu du aldaketa guztiak egitea zaila izaten dela: "Gauzatu daitekeenarekin, homologatu daitekeenarekin eta aldaketen kostuarekin, baztertu egin behar izaten dira aldaketa batzuk".

Dena den, pertsonalizazio eta estilo kontuak alde batera utzita, aztertzerak eta konponketak egitera joaten dira bezero gehienak Zezen Motors garajera. Eta Zumaiatik kanpokoak izaten dira ibilgailuak pertsonalizatzen dituzten bezeroak. Gizonezkoak dira gehienak, baina mekanikoaren arabera, gero eta emakume gehiago gerturatzen ari dira motorren mundura. Gaineratu duenez, emakumezko bezeroentzat hiru motor egokitu ditu azken hilabeteetan.

Uztailetik zabalik

Ibilgailuak bakarrik ez, lokala bera ere Torok berak egokitu du, instalazio elektrikoak hasi eta iturgintza lanetara. Garajea behar bezala publikoari zabaltzeko, irekiera festa antolatu zuen uztailearen hasieran Torok. Inguruko bultzadarekin hasi du bidea Zezen Motors garajeak, eta aurrerantzean motozale guztientzat izango da zabalik. ■■■

**GAINERAKO ARLOETAN
BEZALA, "JOAN ETA
ETORRI EGITEN DIREN
MODAK" DAUDE
MOTORRENEAN ERE**

**AZTERTZERA ETA
KONPONKETAK
EGITERA JOATEN DIRA
BEZERO GEHIENAK
GARAJERA**

"Kanpinaren eta mendien artean"

Zigor Etxabe, Itxaspe Kanpineko langilea eta mendizalea

Mantenu lanak egiten aritzen da negu partean, eta bezeroei harrera egiten, behin instalazioak atek irekitzen dituenean. Itziarko Itxaspe Kanpinean egiten du lan Zigor Etxabek, eta dagoeneko ondo daki bisitariek zer duten gustuko eta zer ez, zeren bila datozen eta zer ekidin nahi duten, haien jatorriaren arabera. Naturaz inguratuta lan egiteaz gain, mendiaz ere hitz egin du BALEIKEREkin.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Zazpi urte daramatza Zigor Etxabe Astigarragak (Narrondo, 1974) Itxaspe Kanpinean lanean, Itziarren. Ingeniaritza elektronikoa ikasitakoa, ezagutza hori ez du praktikan jarri inoiz; beste lan batzuetan aritu izan da ikasketak amaitu zituenetik: "Zarauzko Itxaropena inprentan sei urte egin nituen, koadernaketa-eta egiten, baina aldaketa bat behar nuela eta, Astilleros Balenciagan hasi nintzen lanean. Han beste sei urte egin nituen doitzailan", kontatu du. Eskaladako –bere bizitzan garrantzia handia duen jarduera– kide batek eskainita hasi zen Etxabe kanpinean lanean. "Eskaladan gurekin sokan ibiltzen den Gorkak [Agirreazaldeg] eskaini zidan lan hau, eta Balenciagan gustura banengoen ere, onartu egin nuen", esan du. Behin lanaldia amaituta, gauez, zerbeza bat eskuetan duela aritu da BALEIKEREkin solasean.

Kanpin asko urte osoan egoten dira zabalik; Itxaspe, berriz, urte erdiz. "Kanpin txikia da, familiakoa; Aste Santuan zabaltzen dugu, eta

irailaren amaiera aldera itxi. Esan daiteke sei hilabetez egoten dela zabalik, eta beste urte erdiz itxita. Gero, nahiz eta bezeroentzako itxita egon, hilabete horietan mantenu lanak-eta egiten ditugu".

Neguan hasten dira hurrengo denboraldirako kanpina prestatzen. "Igerilekua martxan jarri, pintaketa lanak egin, garbiketa sakonak, berrikuntzak... Gero, behin zabalik dagoenean, goi denboraldian bereziki, harreran egotea ere egokitzen zait", esan du Etxabek. "Bezeroak artatzeko gutxieneko ingeles maila behar duzu. Nire lankideek frantsesa ere dominatzen dute, eta gaztelania ere bai nik baino hobeto!", azaldu du barrez.

Europako iparraldean sona handia duen kanpina da Itxaspe, eta udako hilabete batzuetan, uztailean bereziki, bezeroen gehiengoak Europako goi partean du jatorria. "Ekainean ere bai, baina uztailean nabarmentzen da Herbehereetako bisitarien etorrera, baita alemaniarrena eta belgikarrena ere. Horiez gain, ingelesak, frantsesak nahiz italiarrak ere etortzen dira. Zazpi urte daramatzat hemen lanean, eta



irrimarra



hasi nintzenetik bezero holandar asko izan ditugu. Ni ere harritu ninduen horrek; berez etorri den zerbait da", gaineratu du.

Abuztuan bezero mota aldatu egiten dela dio Etxabek. "Herbehereetako eta Belgikako bezeroak joan egiten dira; han eskolak-eta azkarrago hasten dituzte". Iberiar Penintsulako bezeroek hartzen dute haien lekukoa, Etxaberen esanetan.

"Nafarroatik nahiz Herrialde Katalanetatik bertaraten dira asko, baina baita Madrildik edo Andaluziatik ere". Kultura aldetik desberdintasunak egoten direla dio kanpineko langileak. "Iparraldekoek isiltasuna maite dute; guk soinu gehiago ateratzen dugu. Hango kanpin batera joaten bagara, 22:00etarako edo 23:00etarako isiltasuna nagusituko da. Hemen, abuztuan, ez da hori hain erraza, eta bezero mota aldatzean, are eta zailagoa da. Hala ere, Itxaspe oso zorrotza da, akaso bezeroek beraiek *kutsatuta*; garrantzia ematen diogu isiltasunari; ez da parrandarako lekua".

Akaso horregatik erakarriko du Europa iparraldeko hainbeste bidaiari? "Itxaspe herritik pixka bat aparte dago, eta etortzen zaigun jende asko kirolaria da, bizikletan eta korrika egiten duena, mendian ibiltzen den jendea. Kanpotarren ikuspegitik, nahiz eta herritik urruti egon, hurbil dago beraientzako. Gainera, gustuko dute ardiak eta behiak ikustea aurreko zelaian". Etxabek nabarmendu duenez, Europa iparraldeko bisitariek "ez dakite hau Euskal Herria denik. Gehienek pentsatzen dute Espainiara datozela, eguzkitara, eta kostaldeko parte hau polita dela. Hegoaldetik datozenek, berriz, badakite Euskal Herrian freskoago egiten duela udan, eta euria egiten duela ere bai batzuetan. Hemen gustura egoten dira lainotua dagoenean, eta euri pixka bat egiten duenean ere bai, lo errazago egiten dutelako. Baina hamabost egunez euria egiten

badu... hegoaldekoa edo iparraldekoa izan, horrek ez die graziarik egiten", kontatu du Etxabek barre artean.

Kanpinzalea da bera ere, eta oporretan kanpinak erabiltzen ditu. "Udaberrian, kanpin denboraldia hasi aurretik, edo udazkenean, behin bukatu denean, hartzen ditut oporrak, eta gustatzen zait kanpin lasaiak eta txikiak aurkitzea. Alazne emaztearekin kanpin askotan ibili naiz urte hauetan guztietan. Garai batean kanpin dendarekin ibiltzen ginen, eta orain furgonetarekin ere bai". Hotelak ez ditu gustuko. "Esku bateko behatzekin kontaktuko nituzke hoteletan igarotako gauak. Hotelek ez naute batere erakartzen; luxua islatzen dute, baina azkenean, lau hormaren artean zaude".

Mendizalea da Etxabe. "Txikitatik naiz mendizalea. Aita txikia nintzela hil zitzaigun, eta osabekin-eta asko joaten ginen mendira. Igandero joaten ginen, adibidez, Andutzera. Gero, gaztetan, Indamendik emandako eskalada ikastaro batean parte hartu genuen, eta eskaladarako materiala utzi ziguten. Sokekin ere hasi nintzen eskaladan

Zigor Etxabe

- **Adina:** 48 urte.
- **Ikasketak:** Ingeniaritza elektronikoa.
- **Lanbidea:** Harrerako eta mantenuko langilea Itxaspe Kanpinean.
- **Kanpineko langilea ez banintz...** Mendiko gida izatea gustuko dut, baina hori lanbide bihurtzeak ez dakit zenbateraino aseko nindukeen.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Etxean lasai egotea emaztearekin, eta denbora libre badut, buelta bat ematea.



garai hartan, eta Joxemiten ere bai Apolok [Josu Garate], Larregik [Imanol Azkue] eta haiek hasitako bidetik. Haitza zela, ikastaro hura zela... Pirinioetara joaten hasi nintzen, eta ordutik urteetan ibili naiz mendian, bakarrik batzuetan, lagunekin besteetan. Txikitako grina mantendu dut; zuloetan sartzea, mendietan gora egitea, abentura gogo hori bakoitzak bere modura eramango du, baina orduan sentitutako hori seguru barruan daramagula denok". Leku askotan izan da, eta oroitzapen txarrik ez du. "Agian

maiteenak Pirinioak izango dira: ama bat bezala da, etengabe emango dizu dena". Igo nahiko lukeen mendirik ba ote den galdetuta, berriz, Matterhorn dio, *Cervino* italieraz, "ikonikoa delako eta txikitatik txorakeria hori izan dugulako. Baditut han izan diren lagunak, eta egiteke dudan zerbait da. Hala ere, igo gabe utziko banu ere, ez litzateke ezer gertatuko. Haraino joan, une berean igo nahi duten beste ehun lagun topatu... Jende pila bat badago ez nago gustura mendian; ez hemen, ez inon". ■■■

NON DAGO BALEIKE?

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali irailaren 23a baino lehen.

Saria: TIPITAKin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Uztaileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 33. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Esti Mora Olazagoitia** bazkidea izan da irabazlea.





IZAN IRAKUR ZALE!

**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

BALEIKE

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zigorra ez erabiltzeko arrazoiak



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Bi motibazio mota daude: estrintsekoa eta intrintsekoa. Estrintsekoa kanpotik datorkigun motibazioa da (norbaitek zoriontzen gaituenean, soldata on bat jasotzen dugunean, zigor bat jartzen digutenean, norbait gurekin haserretzen denean...); intrintsekoa, aldiz, gure barrutik ateratzen dena da (gauza bat lortu eta harro sentitzen garenean; beste pertsona batek, guk izandako jokaera desegokiagatik, atsekabea sentitzen duenean eta horrek hunkitu egiten gaituenean; ariketa bat egin eta gustura sentitzen garenean...). Biak dira garrantzitsuak, baina intrintsekoak, epe luzera, indar gehiago dauka.

Errefortzu eta zigorrekin hezten ohitu gara, hau da, kanpotik datorkigun motibazioarekin. Horrela, eskolan gauzak ondo eginez gero, ikasiz gero, jarrera ona izanez gero... nota onak (errefortzu positiboa) jasotzen ditugu; eta, alderantziz, jarrera desegokia edo ikasketetan eskas ibiliz gero, jolas-garairik gabe gelditzen gara edota ebaluazio eta nota txarrak jasotzen ditugu (zigorra). Etxean, berdin: jarrera egokiarekin sariak, gometxak...

lortzen ditugu; aldiz, jarrera ezegokiarekin, zigorra.

Zer lortzen dugu sistema honekin? Epe motzera lorpen batzuk ikus daitezke, baina, epe luzera, hori guztia kaltegarria da. Etengabe kanpoko balorazioa jasotzen dugu, kanpotik datorren motibazioa, estrintsekoa, eta horrela, ondo funtzionatzeko etengabe errefortzuak eta zigorrak behar ditugu (balorazio negatiboak, isunak, zoriontzeak...).

Zergatik ez da ona haurrak zigortzea?

- Zigorrek indarra erabiliz irabazten erakusten dute. Haurrarekin egin behar dugu lan, ez bere aurka.
- Zigorrek pertsonengan emozio deserosoak sortzen dituzte: beldurra, amorrua, larritasuna. Badakigu emozio horiek erantzun bortitzak sortzen dituztela.
- Eredu negatibo bat ematen dute: ni zigortzen naute; beraz, nik ere zigor dezaket, eta beste


**ZIGORRAK
AUTORITATEA
IRABAZIKO DU;
ZIGORTZAILEAK,
BERRIZ, GALDU**

edonork ni zigortzeko askatasuna du.

- Erlazioan eragin handia du: zigortzen duen pertsonaren eta zigortuaren arteko erlazioan gatazka gehiago sortzeko joera egongo da.
- Zigortzen den jarrera ezaba daiteke, baina beste jarrera desegoki bat azaltzeko probabilitatea handitzen da.
- Haurrak bere burua modu negatiboan etiketatzeko arriskua dago, eta horrek jarrera desegoki gehiago sortzen ditu haurraren egunerokotasunean.
- Zenbat eta zigor gehiago erabili, orduan eta gehiago beharko ditu bere jarrerak inhibitzeko. Inoiz bukatzen ez den sistema bat da.
- Zigorrak autoritatea irabaziko du, baina zigortzaileak autoritatea galduko du. Zigorrik gabe, zigortzailearen hitzek eta arrazoiak indarra galduko dute epe luzera.


Zer egin, orduan?

Hausnarketa asko landu. Zer ondorio izango ditu nire jarrerak besteengan? Zer sentituko dute? Zer ondorio izango ditu nire jarrerak epe luzera eta epe motzera? Eta, noski, beti bezala, asko hitz egin haurrak jarrera horiek egitera eramaten dituen sentimenduez eta beharrez. ■■■



Kirol hau halterofilia omen da. Horrez gain, ba al dakizu zein den pisu-jasotzailearen itzal zuzena?

Itzalak



Kolorezta ezazu zure gustura.

Hara! Jauzi batetik bestera lau gauza galdu ditu Maripurtzilek. Gainera, elementu berri bat agertu da. Ikusten al dituzu?

Jauziak




Zenbat?

Etxeko patata-tortillarik onenak Pellozirik egiten ditu. Hiru patata, lau arrautza, olio, gatza eta tipula behar ditu tortilla bakoitzeko.

Hemen dauzkan gaien arabera, zenbat tortilla aterako zaizkio?





1 Puzzle-zati hauetatik zortzik irudia osatuko lukete baina beste laurak engainagarriak dira, ez dira zehatz-zehatzak. Bereiz itzazu.

PUZZLEA

Ui, ene, hau da parea... Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta hiru esamolde azalduko zaizkizu.

Zeeer?!

Below the illustration are several speech bubbles containing word puzzles. Each bubble contains a sequence of small icons representing different words. The icons include: a fork, a knife, a spoon, a bowl, a glass, a plate, a carrot, a tomato, a mushroom, a pepper, a banana, a pear, a leaf, a flower, a house, a car, a dog, a cat, a bird, a fish, a pig, a cow, a horse, a sheep, a rabbit, a mouse, a frog, a snake, a spider, a fly, a bee, a butterfly, a ladybug, a snail, a worm, a mole, a hedgehog, a porcupine, a bear, a lion, a tiger, a leopard, a cheetah, a gazelle, a zebra, a giraffe, a camel, a kangaroo, a koala, a platypus, a quokka, a wallaby, a possum, a wombat, a bandicoot, a marsupial, a monotreme, a platypus, a quokka, a wallaby, a possum, a wombat, a bandicoot, a marsupial, a monotreme.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?

Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

Maitane Arruti

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Zumaian jaio nintzen 1982an. Merkataritza ikasi eta arropa denda bat zabaldu nuen. Kafetegi baten ardura daramat orain, baina hori ez zen izan inoiz nire asmoa; esan daiteke zeharka heldu zitzaidala. Gure aitak jolastokia zuen Arranplan, eta ikusita makinaren erabilera jaitsi egin zela bideojokoak-eta etxean sartu zirenean, makinak kendu eta izozki eta litxarrerria denda jarri zuen. Aitak esan zidan ea jarraitu nahiko nukeen negozioarekin. Garbi nuen ez nuela litxarrerria dendarekin jarraitu nahi, eta buelta asko eman ondoren, kafetegia zabaldu genuen. Donostiako Tabakalerako kafetegia eramaten duen jendeak lagundu zigun hasiera hartan, zorte hori izan genuen. Egia esan, ostalaritzarekin ez nuen aurretik harremanik izan; nire lagunek bai, baina nik ez. Ez nekien ezer ere horretaz, baina animatu egin nintzen, eta aurrera atera genuen. Kafetegiarena ez zen egun batetik besterako zerbait izan; proiektu handia zen, eta urteak pasatu ziren dena martxan jartzerako. Denbora batean, sei hilabetez edo, arropa denda eta kafetegia batera eraman nituen, honetan zentratu nintzen arte.

Aitarena zen negozioa, eta aldatzeko asmoa genuela esan genionean oso ondo hartu zuen. Aitak beti bultzatu gaitu; batzuetan berak gogo gehiago zuen guk geuk baino! Beti izan da berrikuntzaren aldekoa, inoiz ez du beldurrik izan; ni zuhurragoa izan naiz beti. Amaren aldera atera naiz! Aitak hasieratik zioen proiektuak "osoa" izan behar zuela, lokal osoa hartzen zuena; nik, berriz, nioen probatu egin behar genuela, ea funtzionatzen zuen, inbertsio osoa egin aurretik. Azkenean, arrazoa eman diogu aitari! Oso harrera ona izan du; herriaren erantzuna ikusi dugu, jendeari gustatu zaio. Garbi nuena zen ez nuela "beste kafetegi bat gehiago" izatea nahi. Tabakalerako kafetegiko jendearekin hitz eginda, ikusi genuen kafea ateratzeko beste metodo bat bazela, beste kafe bat ere bai. Tostadekin ere, berdin; klasikoak mantenduta, beste zerbait egin nahi genuen, probatzen joan, eta, egia esan,

klasikoak, –gurin eta marmeladarenak–, oso gutxi ateratzen ditugu gaur egun.

Makinak genituen garaian ere izozkiak saltzen genituen. Gure aitak izozkiak egiteko makina bat zuen gela txiki batean. Hasieran bi zapore ateratzen ziren, eta biak konbinatuta hirugarren bat ere egiten zuen. Ikusita jendeak gustura jaten zituela, izozkien bitrina jarri zuen. Lehen izozkiak denon artean egiten genituen. Beldur pixka batekin hasi ginen, gauza berria zen-eta. Orain ere, jarraitzen dugu izozkiak egiten.

Kafetegiak bi fase izan dituela esan daiteke. Lehen urteetan espazioaren erdia bakarrik hartzen zuen, eta *take away*–eramateko– kontzeptua zuen. Aulki gutxi batzuk zeuden, baina asmoa zen eramateko kafeak ateratzea. Konturatu ginen, ordea, eserita kontsumitzeko eskaera zegoela. Atzeko partea biltegi bezala erabiltzen genuen, eta urte eta erdira-edo hura zabaldu eta atzean jangela modukoa jartzea pentsatu genuen. Obradore txiki bat genuen, eta hori ere handitu egin genuen. Dena guk egindakoa da: tostadak, pastelak..., dena, eta hor konturatu ginen zerbait handiagoa behar genuela, sukalde txiki horrekin ez genuela asko egiten. Gero, urtean zehar ikastaro batzuk-eta egiten ditugu Bartzelonako etxe batekin, eta hor bonboiak, turroiak eta bestelakoak egiten ikasi dugu. Pixkanaka gauzak sartzen joan gara.

Negozioaren izena mantendu dugu, Maiaur. Izena ahizpon izenengatik dator: ni Maitane naiz, eta ahizpa Aurkene. Bi alabon izenak elkartzetik dator, beraz. Nik izena aldatu egin nahi nuen, niretzat bizitza etapez osatuta dagoelako, eta uste nuelako aurreko etapa bukatu zela. Gozokien dendarekin jarraitu nahi nuen? Ez, etapa hori bukatuta zegoen, bideojokoena bukatu zen bezala. Beste etapa bat zen, beste pertsona bat nintzen, eta beste zerbait nahi nuen. Gero konturatu naiz jendeak Maiaur, Joxemariarena edo bolera bezala ezagutzen gaituela. Beno, Maiaur bezala jende gutxik, egia esan. Jende helduarentzat Joxemari izango da, eta gazteagoentzako bolera. Taberna askok izena aldatu dute, baina aurrekoagatik ezagutzen da oraindik ere. Aldatu nahiko nuke, baina nik uste hala jarraituko duela; ez dit axola. ■■■



PUBLIZITATEA

EGOKI

Eroju eta bitxi denda
 E. Gurrutxaga plaza, 6
 tel. 943-86 17 87

ekin
 /elektrotiketa, L.L.
 Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
 ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com
Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet
mara **MÁSMÓV L**

ERNTO TABERNA

 V. Arrate, 3
 Tel. 943-86 00 45

Ertz Informatika
ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK · KONPONKETAK
 Beheko plaza 943-14 33 95

Garoa
 Carlos Cintero / Ainhoa Olaizola
 tel.: 943-86 21 81
 Txomin Agirre, s/n
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
 INGELES AKADEMIA
TALDE MURRIZTUAK
 Zumbilo kalea, 12 behea
 tel. 670 39 17 77
matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua
Golden Gate
 institute
 hizkuntz eskola
 Erribera kalea 1 bis, behea
 tel./faxa 943-86 50 20
 info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
 aberna
 Upela plaza, 4
 20750 Zumaia
 Tel.: 943-86 09 70

Harvest
 English School
 ...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com
 San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi
 Alai auzategia, 2
 Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE ELKARTEA
 Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika
 Optometria - audio zentroa
 Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
 Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

 Ikuskizun orotarako solnu eta argiztapen alokalirua
 Hots eta irudigintza aretoa
 tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

MISTOA IRUITZ
 ileapaindegia
 Anali si kapilarrak eta tratamendu personalizatuak
 San Telmo12 943-86 07 60

ORRAZTEGI ZUMAI A
 943-86 20 83

JUARISTI
 jatetxea
 Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua
 Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI TABERNA
 Patxela Elvezarreta, 15
 943-11 74 27

Geoparkea aztergai

Lau urtean behin ebaluatzen ditu Unescok bere sareko parte diren geoparkeak. Euskal Kostaldeko Geoparkeak ekainaren erdi aldera jaso zuen ebaluatzaileen bisita, eta, dena ondo bidean, beste lau urtez mundu mailako sare horretako kide izateko txartel berdea eskuratuko du.

Euskal Kostaldeko Geoparkea 2010. urtean sartu zen Europako geoparkeen sarean (EGN). 2015. urtean Unescoren batzar orokorrak aho batez onartu zuen Unescoren geoparkeen programa berria. 1970eko hamarkadan Unescok Biosfera Erreserbak eta Munduko Ondarea programak izendatu zituen, baina ordutik ez zen leku fisiko bat izendatzeko programa berririk onartu. 2015. urtean geoparkeek lortutakoa mugarri ederra izan zen. Unescoren edozein izendapenek leku konkretu baten balio kultural edo/eta naturalak aitortzen ditu, baina ez hori bakarrik: ondare hori kontserbatzeko eta balioa nabarmentzeko egiten den kudeaketak ere berebiziko garrantzia dauka.

Kudeaketa hori ondo egiten dela eta geoparkeak proiektu biziak direla bermatzeko, Unescoren barruko geoparkeak ebaluatu egiten dituzte lau urtean behin. Ebaluazio horretan, beste geoparkeetako bi aditu etortzen dira, eta azken lau urteetan egindako lanak goitik behera begiratzen dituzte. Gure lehen ebaluazioa 2010. urtean izan zen, eta aurtien laugarren aldiz ebaluatu gaituzte. Ekainaren 14tik 17ra Manfred Kupetz geologo alemaniarra eta Egidio Calabrese ingeniari italiarra aritu dira gure geoparkearen garapena aztertzen. Gauzak ondo badoaz, txartel berdea jasoko dugu Unescon beste lau urte jarraitzeko. Arazo larririk balego txartel horia jasoko genuke, eta bi urte izango genituzke arazoak konpontzeko. Gauzak oso larri baleude, berriz, txartel gorria jasotzeko aukera legoke, baina ez da hori gure kasua. Harrotasunez esan genezake Euskal Kostaldeko

Testua: **Asier Hilario Orus. Geoparkeko koordinatzaile zientifikoa.** Argazkiak: **Euskal Kostaldeko Geoparkea.**

Geoparkeak distira berezia duela gaur egun sarean dauden 177 geoparkeen artean.

Ekaineko hiru egun horietan gure ebaluatzaileek egindako ibilbidea erabiliko dugu 2022. urtean Geoparkearen giltzarri nagusiak zein diren ulertzeko.

1. eguna: karsta, historiaurrea eta begiratoki berriak

Aurreneko eguna Deba inguruan pasatu genuen. Gure geoparkea ondo ulertzeko, lehenik eta behin, Debako turismo bulegoan kokatuta dagoen Geoparkearen bulegoa erakutsi genien. Bertan, Geoparkearen kudeaketa eta funtzionamendua ulertzeko aukera izan zuten; sare sozialetan egiten dugun lanaren berri jaso zuten, eta gure bisita gidatuen programak nola funtzionatzen duen ere ezagutu zuten. Azken urteetan egindako lan konstantearen ondorioz, Geoparkea erreferente bilakatu da sare sozialetan, baina benetan bereizten gaituen aktibitate nagusia irteera gidatuena da. Gaur egun, gure ondare nagusiak azaltzeko, Geoparkeak 15 irteera gidatu mota desberdin eskaintzen ditu. Urte guztian zehar 1.300 bisita inguru eskaintzen dira, eta erreserbak online egin daitezke. Urtean 20.000 pertsonak baino gehiagok hartzen dute parte gure eskaintza zabal horretan.

Bulegotik ateratakoan, Debako herriaren historia ezagutzeko panel ibilbidea egin zuten ebaluatzaileek. Zumaian eta Mutrikun ere antzeko ibilbide urbano autogidatuak egin daitezke. Izan ere, Geoparkea ez da geologia bakarrik; gure historia eta gure nortasuna ere bada.

Deba bailaran jarraitu genuen, eta Geoparkeak esku artean duen proiektu estrategiko bat ikusteko aukera izan zuten: historiaurreko bailara. Gure geoparkean, kantauriar kostaldean, goi paleolito garaiko aztarnategi arkeologiko eta paleontologiko kontzentrazio handia daukagu. Hala, hurrengo urteetan Deba bailaran gure arbasoen bizimodua ulertzeko proiektu itzela garatuko dugu. Azken hiru urteetan proiektua landu eta findu dugu, eta erakundeetatik babes zabala jaso dugu. Orain ideiak biribildu eta exekutatzeko momentua iritsi zaigu. Guztiz harrigarriak izango dira bailara honetan ikusi eta ikasiko ditugun gauza berriak.

Lasturrera iritsi, eta errotak bisitatzen zebilen ume talde batek egin zigun ongietorria. 2020. urtean Lasturko San Nikolas auzoaren inguruan Geoparkeak eskoletarako unitate didaktiko berria landu du karst eremua zer den ulertzeko. Artoa errotatik hartu, eta gure ebaluatzaileek talo bat egin zuten hamaiketarako. Esperientzia hori gure irteera gidatuetan ere eskaintzen dugu. Anima zaitetz, beraz! Ondoren, Flysch txakolindegian eta Itxaspe kanpinean Geoparkeak bertako ekoizleekin eta ostatuekin duen erlazioa azaldu genien. Gaur egun 20 geoparkelaze baino gehiago gaude taldean, eta familia handitzen ari da.

Eguna bukatzeko, Santa Katalina ermitan egindako begiratoki berrira joan ginen. Lasturko harriarekin egindako 360 graduko begiratoki hori ikusgarria da. Bertan ginen bitartean, erromes eta mendizale ugari pasa ziren gure GR-121 ederra egiten. Deba-Zumaia ibilbidea azken urteetan Iberiar penintsula osoko itsasertzeko ibilbide preziatuenetariko bat bilakatu da, eta ez da harritzekoa.



Sasiolako karst pinakularra, eta bertako aztarnategi arkeologikoak ikusteko behatoki berria.



Lasturko errotetan hezkuntza ekintzak.



Arrietakua jauregia.



Olatz bailaran mapa geomorfologiko berria ikusten.



Algorri interpretazio zentrora egindako bisita.



Itzurun hondartzan *urrezko* iltzeak ikusten.

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAK DISTIRA BEREZIA DU SAREKO 177 ERAKUNDEEN ARTEAN

ERAKUTSI DUGU GURE ARTEAN DUGUN ONENA. EBALUATZAILEEN ETA UNESCOREN TXANDA DA ORAIN

2. eguna: amonite erraldoiak, mapa geomorfologikoa eta itsas ondarea

Bigarren eguna Mutrikun pasatu genuen. Herri txikia da, baina altxor ederrez hornituta dago. Nautilus biltegi berria hasi genuen eguna. EHUKo Mikel Lopez-Horgue paleontologoak azaldu zigun azken urteetan Mutrikuko amonite erraldoiekin egin dugun lan itzela. Ikerketa, kontserbazioa, hezkuntza eta aitortza bateratzen dituen proiektu eder hori paregabea da geoparke baten balioak zein diren erakusteko. Amonite

erraldoi horiek oraindik ezagutzen ez badituzu, ez galdu aukera, eta eman izena gure irteera gidatuetan. Ikerketei esker, amonite erraldoi horien zergatiaren lehen hipotesia daukagu, eta guztiz txundituta utziko zaitu.

Mutrikuk badu mundu mailan erreferentea den zerbait: olatu energia aprobetxatzeko azpiegitura esperimentalak. Energia berriztagarrien garapena gero eta beharrezkoagoa den honetan, ezinbestekoa da ikerketarako apustua egitea. Euskal Herriak duen erliebea kontuan izanik, aukera murrizak ditu. Itsasoan egon daiteke gure *petrolio* berria. Geoparkeak puntako ekintza horren altaboza izan nahi du: klima aldaketa eta energia berriztagarriak dira geoparke guztietako gai nagusiak.

Mutrikutik atera gabe, 300 urte egin genuen atzera bidaia Arrietakua jauregian. Txurruka eta Gaztañeta marinela ospetsuen etxean sartu ginen. Inork gutxi ezagutzen du Mutrikuko bi marinela horiek XVII. eta XVIII. mendeetan izan zuten ospea eta garrantzia. Itsas ondarea bultzatzeko Geoparkeak bisita horiek egiteko aukera zabaldu du. Begiratu gure eskaintza, eta aukeratu egun bat. Sinestezina da jauregi horren barruan dagoen altxorra.

Egunaren bigarren zatia Olatz bailaran igaro genuen. Bertan Goienetxe baserriko artzai gazta ederra dastatzeko aukera izan genuen; horixe da gure bisita gidatuetan parte hartzen dutenek izaten duten esperientzia polita. Bertan, espeleologo talde batek ebaluatzaileei azaldu zien Geoparkeak beraiekin ireki duen kolaborazioa, eta Martin Arriolabengoa unibertsitate irakasleak azken sei urteetan landutako mapa geomorfologikoa berria aurkeztu zien.

Azken urteetan egindako ikerketen ondorioz, karst eremua gero eta hobeto ezagutzen dugu, baina horretarako espeleologoek laguntza behar dugu. Gure geoparkean Gipuzkoako lurpeko sistema luzeena daukagu, eta oraindik dozenaka kilometro ditugu esploratzeko. Geoparkea lehen pausoak ematen hasi da bertan lan egiten duten espeleologo talde guztien laguntzailea izateko.

3. eguna: Algorri, Zumaiaiko flyscha eta biotopo babestua

Geoparkera etorri eta Zumaiaiko flyscha ez ikustea, Reina Sofia museoan *Gernika* ez ikustea bezala da. Ebaluatzaileak txundituta geratu ziren. Bisita Algorri interpretazio zentroan hasi genuen. Bertan, 2019an egindako Scolicia erreplika ikusi genuen, eta Algorri eskaintzen duen ingurumen hezkuntza zabala ikusi ahal izan zuten. Urtean 15.000 ikasle inguru etortzen dira Geoparkean ekintzak egiteko. Bide batez, Algorri interpretazio zentroak berritzeko duen beharraz eta esku artean dauzkagun proiektuez ere hitz egin genuen.

San Telmo inguruan, Algorri bideko azpiegitura ikusi ahal izan genuen. Azpiegitura hori higadura ekiditeko eta bisitarien esperientzia hobetzeko egin zen. Urtean 100.000 pertsona baino gehiago pasatzen dira ibilbide honetatik, eta hori ondo kudeatu beharreko erronka izateaz gain, komunikaziorako eta

sentsibilizaziorako aukera paregabea ere bada. Denboraren ibilbidea ikusi genuen, eta, azkenik, Itzurun hondartzako *urrezko* bi iltzeetan, aurtengo urrian bertan egingo den nazioarteko ekitaldi zientifikoaz ere hitz egin genuen. Munduko lehen 100 interesgune geologikoak Zumaian aurkeztuko dira, baina izango dugu tartea horri buruz ere hitz egiteko.

Eguna bukatzeko, Elorriagako atsedenekura joan ginen, bertan biotopo babestuaren kudeatzaileekin elkartzeko. Gure kostaldeko geoibilbideak ezagutzeko sortu ditugun sakelarako pdf berriak aurkeztu genituen, onartu berri den erabilpen publiko eta laginketa geologikoentzako araudi berria azaldu genien, eta duela gutxi labarretan egindako garbiketaz ere jardun genuen. Geoparke batean ezinbestekoa da bertako gune natural babestuen kudeatzaileak geoparkeko kide izatea, eta esan daiteke hori, gure kasuan, ondo betetzen dela. Biotopo babestuak eta Geoparkeak elkarlana bultzatu dute hasiera-hasieratik.

Guk erakutsi dugu esku artean dugun onena. Orain ebaluatzaileen eta Unescoren txostena jaso behar dugu. Ebaluazioak eskolako azterketak bezalakoak dira: zorrotzak, baina ikasturtean zehar lanak ondo eginda badaude, gozatzeko eta harrotasunez egindako lana erakusteko aukera ederra ere badira. ■■■



Santa Katalinako behatoki berria.

PUBLIZITATEA

Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269  

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL
estudio decoración



Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943-86 16 91



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

**Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)**

Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.
Joxe Mari Kortu Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritateak - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINZTA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 - 688 71 85 38

talaraia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko - tel. 943 573 905

Euskararen argiak: batzuetan txinpartak, besteetan kandilak

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO OSTOLAZA

Amama filmean, Asier Altunak oso irudi eta metafora ederrak erakutsi zizkigun, eta haietako bat denbora luzez iltzatuta geratu zitzaidan gogoan: Manu Uranga saltaka basoan zehar, amama bizkarrean hartuta. Oteizarekin eta haren 80 amamekin akordatu nintzen, uste baino gertuago dauzkagulako leize zuloetan bizi ziren gure arbasoak, eta aspaldiko ideia bat ere ibili nuen buruan: iraganari lotzen gaituen sokari tiraka, noraino iritsiko ginatete? Zer dakigu guk bizkarrean daramatzagun amamez? Gure amama bai, eta asko jota haren ama, baina hortik atzera zer? Nahikoa izango dugu pare bat koska gora egitea dena ilun ikusteko, oso gutxi dakigulako gure arbasoek. Izan zirelako gara, kontziente gara geure aurrekoen ondorengoak garela, baina oso motza eta ahula da iraganari lotzen gaituen soka, gure ezaguera. Eta hori gertatzen zaigu non eta informazioaren gizartean, ia denaren berri di-da batean jakin dezakegunean pantailari begira.

Koldo Mitxelenak esan zuen euskararen benetako misterioa

bizirik irautea zela, eta ez jatorria, gaur eguneraino iritsi zaigulako zailtasun, oztopo, gorabehera, mehatxu, debeku eta abar guztien gainetik. Baina euskara ez zaigu bakarrik iritsi; izan ere, euskaldunek ekarri digute, ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi, eta guk euskaraz egiten dugu gure aurrekoek euskaraz egin zutelako, hizkuntza transmititu zutelako eta hizkuntzaren soka ez zelako eten. Baina zer dakigu iraganeko hizkuntzaz? Nola hitz egiten zuten Zumaian XV. mendean edo XVIII.ean? Zenbatek zekiten euskaraz edo gaztelaniaz? Zein zen hizkuntza nagusia? Zer funtzio zeukan hizkuntza bakoitzak? Seguru asko izango ditugu susmoak, izango dugu zerbaiten errezeloa, baina segurantzia handirik ez. Badugu intuizioa edo uste osoa gure aurrekoek euskaraz egingo zutela, baina zer frogara daukagu hori egiaztatzeko? Ia ezer ere ez, ez bada agiri zaharretako hitz solteak, ia ahazturiko pasadizoren bat edo gaur

**KOLDO MITXELENAK
ESAN ZUEN
EUSKARAREN
BENETAKO MISTERIOA
BIZIRIK IRAUTEA ZELA**

eguneraino iritsi zaizkigun leku izenak.

Bittor Kapanaga Elorzak “Amaren Sua” terminoa sortu zuen¹, Arestiren “Aitaren Etxea” metaforaren parez pare jartzeko edo nolabait hura osatzeko. Kapanagak adierazi nahi zuen Aitaren Etxeak ezinbestean behar duela sua etxean argitasuna eta berotasuna izateko, euskaratik datorkigun izatasuna, eta su horren txingarrak belaunaldiz belaunaldi pasatu direlako ari gara gu ere euskaraz. Baina zer dakigu su horretaz eta su horri eutsi zioten amez eta amamez? Zenbat eta gehiago urrunduta denboran, orduan eta lausoago edo beltzago ikusiko dugu gure euskararen iragana, ezer gutxi dakigulako gure hizkuntzaren historiaz, gorabeheraz eta bilakaeraz.

Zumaiako Udalaren beka bati esker, 2018-2020 artean Zumaiako euskararen historia soziala aztertzeke aukera izan nuen, edo bestela esanda, ikertu ahal izan nuen noiz eta zergatik egon ziren euskara eta euskaldunak indartsu eta gogotsu, noiz ahul eta beldurtuta, zerk hauspotu zien gogo eta zerk uzkurto zien bihotza, eta egiaztatu ahal izan nuen zein izan ziren 1766-1966 artean euskarak bizirik irauteko

gakoak eta zein izan ziren mehatxu nagusiak. Esku arteko material ugariari begiratuta, baieztatu ahal izan nuen Zumaia herri euskalduna izan zela epealdi horretan eta euskara nagusi izan zela gurean; gehienetan, ordea, ebidentzia horiek ez zeuden oso bistan edo agerian, ondo begiratu beharra zegoen batzuetan ezkutatuta zeudelako, eta hori azaltzeko oso irudi ederra bezain argigarria darabil Peio J. Monteano historialariak: “Si adoptamos como metáfora la figura de un iceberg, la documentación sería la fotografía obtenida desde la superficie del mar: nos muestra la exigua punta del castellano y nos oculta la enorme masa sumergida del euskera”²; eta agerian daukagun hori ere ez da beti nahi bezain garbia, azaleko apaingarrien azpian bilatu beharra baitago euskara: “Ir más allá de las meras apariencias arañando el barniz con que los documentos escritos han cubierto la realidad social”³; gainera, sarritan informazioa ezkutuan egoteaz gain, zeharka atera eta ondorioztatu beharra dago; izan ere, orain bezala orduan, ohikoa edo arrunta, egunerokoa, ez baitzen normalean kontatzen, jakintzat ematen zelako. Gainera, orduko inor ere ez daukagu bizirik zuzenean galdetu ahal izateko,

eta euskararen egoeraz edo bilakaeraz ez dagoenez ia ezer ere propio jasota, ikerketarako gehienetan iturri idatzietara jo behar izan nuen euskararen arrastoen bila, batez ere administrazioko agirietara, gaztelaniazko testuetara.

Hemendik aurrera, atal honetan eta hurrengo zenbakietan, dokumentuen eta testigantzen bidez egiaztatzen ahaleginduko gara zumaiarrak euskaraz bizi zirela duela 250 urte ere, eta erabiliko ditugun testuetako asko epaiketakoak izango dira. Bereziki azpimarratu beharra dago testu horien nolakotasuna, beste dokumentu askotan ez bezala, agiri horietan zumaiar xehe eta arruntak agertuko zaizkigulako hizketan. Honela arrazoitzen du Peio J. Monteanok agiri mota horien garrantzia: “Porque por su naturaleza no permitían la selección de testigos y, en consecuencia, aparece involucrada en ellos la gente común y en especial las mujeres, habitualmente ausentes en otro tipo de procesos. (...) Para investigar

IKUSIKO DUGU SARRITAN ZUMAIARREN ETA EUSKALDUNEN BIDEA EZ DELA ERRAZA IZAN

estos delitos, las autoridades estaban obligadas a interrogar a todos los testigos, sin importar qué lengua hablaban o a qué grupos social pertenecían. La prioridad era el valor informativo de su testimonio. Esto marca la diferencia con los procesos civiles. En estos los testigos, más que información, aportan prestigio social y, por lo tanto, son cuidadosamente seleccionados por las partes”⁴.

Hemendik aurrera, ikusiko dugu sarritan zumaiarren eta euskaldunen bidea ez dela gozoa eta erraza izan, sarritan kostata egin zutela aurrera euskaraz, eta historia aztertuta, makina bat gorabehera jarriko ditugu agerian. Izan ere, ahalegin kontzientea izan zen hizkuntza bat (euskara) ahultzeko eta azpiratzeko eta beste hizkuntza bat (gaztelania) indartzeko eta bultzatzeko: gaztelania hutsezko hezkuntza orokortzea eta euskarazkoa baztertzeko, soldaduskara nahitaez joan beharra, foruak bertan behera lagatzea eta abertzaletasunaren sorrera, berpizkundeak ekarri zuen indarraldia, migrazioak, turismoaren sorrera, 1936ko Gerra eta Francoren diktadura, debekuak... Historiako gertakariak eta euskararen eta euskaldunen egoera elkarri estu-estu lotuta doaz, eta hiztunen gorabeheretako askok historiako gertakizunekin





daukate zerikusia, onerako zein txarrerako. Denetarik ikusiko eta irakurriko dugu hemen: hitzaldiak pulpitutik, emakumezkoak Moilan gaizkiesaka, udaletxeo kartzelan preso daukaten zumaiarra hizketan, Patxikaandienekoaren dendako lapurreta, herrian apaiz euskalduna izatearen garrantzia, Zumaiako lehen medikua euskalduna izan zenekoa, Zumaiako etxeen euskarazko izenak eta medikuak egindako zerrenda herritarren izenekin eta ezizenekin, apaizak dotrina euskaraz eskatzen zuenekoa, kanpotarren etorrerarekin gaztelania nagusitzen hasi eta batzuk kezkatzen hasi

zirenekoa, euskaraz idatzitako udal bandoak, debekuen gainetik euskaraz bizi nahia...

Datozen hilabeteotan, gure iraganean murgilduko gara, eta adibide argigarri batzuekin Zumaiara euskaraz bizi izan dela egiaztatuko dugu. Orain begiratuta, dena ilun ikusiko dugu, ez dugu bereiziko ezer, baina laster piztuko dira pixkanaka argiak, batzuetan txinpartak, beste batzuetan kandilak, eta berriz ere orainera itzulita, ikusiko dugu badagoela euskararen ibilbide garbi eta argitu bat, gaur eguneraino ekarri gaituena; hau da, gauden tokian gaudela bide bat egin zutelako eta egin dugulako. Seguru asko, istorio eta

kontakizun hauetan ez dugu aurkituko gure amamarik, baina bai gure amamarekin batera bizi izan ziren zumaiarrak, aldamenekoak, eta pentsatuko dugu gureak han ibiliko zirela, gu orain hemen gaudelako.

Ongi etorri eta hurren arte! ■■■

¹ Ikusi hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/023/001/2021-12-03/amaren-sua.htm>.

² MONTEANO, Peio J. *El iceberg navarro: euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*, Pamiela, Iruñea, 2017. 13. or.

³ *Ibidem*, 14. or.

⁴ *Ibidem*, 74. or.



DISEINU LANAK



- PAPEREKO APLIKAZIOAK:
FLYERRAK, DIPTIKOAK,
KARTELAK, ETAB.
- KATALOGO PROFESIONALAK/
KORPORATIBOAK.
- AURKEZPEN KORPORATIBOAK.
- ESPAZIOEN SEINALITIKA.
- MERCHANDISING-A ETA PACKAGING-A.
- INFOGRAFIAK.

GUKA       ZERBITZUAK

PUBLIZITATEA



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria
Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana ✂
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla 

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upele Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA  

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com




JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA



egutera

ZUMAIako ENERGIA KOOPERATIBA

Egotetik egitera goaz.
Zumaian bertan **eguzki energia** sortuko dugu.

Eman izena orain, eta bazkide egiteko lehentasuna izango duzu



labur.eus/egutera
Eman izena inolako konpromisorik gabe








AGENDA

ERAKUSKETAK

IRAILAREN 2TIK 18RA

If-en *Er(r)otik*.

DEIALDIAK

IRAILAK 10

Zumaiaiko Triatloia.

15:30ean herrikoia eta 17:00etan esprint modalitatekoa.

OLARRU EGUNA, IRAILAK 17

GOIZ PARTEAN

XVI. ARGAZKI RALLYA. Izen ematea 09:00etatik 10:00etara.
Alondegiko Oxford aretoa.

10:30ETIK 14:30ERA

Elikagaien azoka.
Erribera kalean.

10:00ETAN

Kuadrillen arteko batel estropada, OLARRO EGUNEKO XIV. BANDERA, Telmo Deun arraun elkarteak antolatuta. Bandera estropada eremuan emango da.

GOIZ PARTEAN

Olagarro zopa.
Txosnetan.

10:00ETAN

Flyscheko olagarroa BISITA GIDATUA,

euskaraz %50eko deskontua kode hau erabiliz: olarroeguna. Erreserbak: *geoparkea.eus*.

10:30EAN HASITA

HAUR ETA GAZTETXOENTZAT JOLASAK, Itxas-Gain elkarteak antolatuta.

Arbustaingo arranpla parean, piraguak eta uretako jolasak; eta Gernika parkean, zinta harrapatzea bizikletan, eltzetxoak puskatzea, etab.

11:00ETATIK 13:00ETARA

Olagarroarekin egindako SUKALDARITZA ERAKUSTALDIA.
Eusebio Gurrutxaga plazan.

11:00ETATIK 13:00ETARA

6-10 urte bitarteko haurrentzat doako TAILERRAK. Aurrez izena eman behar da: *info@algorri.eus* edo 943-14 31 00.
Algorri interpretazio zentroan.

11:00ETATIK 14:00ETARA

ATEA ZABALIK, ARRAINEN SALMENTA ARETOA ikusteko.
Kofradian.

11:15EAN

HAMAIKETAKOIA olagarro harrapatzaile izandakoentzat.

11:30EAN

Herriko txistularien KALEJIRA Astindu taldearekin.

12:15EAN

Beheko Plaza eta Zarauzko Udaberri ABESBATZEN SAIOAK.
Herrian zehar.

13:00ETAN

KALEJIRA Zutrik trikitilarien eskutik.

14:30EAN

HERRI BAZKARIA.
Eusebio Gurrutxaga plazan.

17:00ETATIK 19:00ETARA

ATEA ZABALIK, ARRAINEN SALMENTA ARETOA ikusteko.
Kofradian.

17:30EAN

PLAZA DANTZAK.
Eusebio Gurrutxaga plazan.

18:30EAN

EUSKARALDIAREN abestiaren KOREOGRAFIA HERRIKOIA Astindu taldearekin.
Eusebio Gurrutxaga plazan hasi eta Amaia plazara bitartean.

ARRATSALDEZ

OLAGARRO BROTXETAK.
Txosnetan.


19:30EAN

THE MCKENSY'S CLAN BAND txaranga.
Herriko kaleetan.

22:00ETAN

DJ LOTI eta JULEN LUJAN.
Eusebio Gurrutxaga plazako karpan.

Amets galduen zurrunbiloan



FAITH

Egilea: Lander Garro
Argitaratzailea: Elkar
Argitaratze urtea: 2021
Orrialdeak: 356
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Faith Lander Garrok argitara eman duen laugarren eleberria dugu. Elkar argitaletxeak eta Ondarroako Udalak elkarrekin sustatutako Zubikarai sariaren emaitza da errenteriarraren laugarren nobela hau.

Ugartetarrak bueltan dira. *Kontrarioa* eta *Gerra Txikia* nobeletan bezala, ugartetarrak izango dira oraingoan ere protagonista. 2000. urteko Xabi Ugarte da irakurleak *Faith*-en aurkituko duena.

Xabi Ugarte, Xabier Mendiguren Elkarreko editoreak esan bezala, fikzioak fikzio, idazlearen alter egoa, autorearen bigarren pertsonalitatea edo izaera izan daiteke. Motxila potoloa darama bizkarrean, familia, politika, kartzela, borroka, historia eta txikitatik ezagutu duen soinean.

Idealizatuta duen Bartzelonara doa, argazkilaritza ikasteko aitzakiaz, Euskal Herriko errepresio girotik aldentzeko asmoz eta artista bohemioa izateko ametsa gauzatu nahian. Bizimodu prekarioa izango du hirian

lagunen eta ezagunen etxeetan, eta bertako jendea nahiz han egokitutako euskaldunak ezagutuko ditu. Baina Bartzelona ez da berak espero zuena eta han ere zain izango ditu, beste edonon izango lituzkeen bezala, Euskal Herriko mamu berberak: familiak nozitutako zapalkuntzaren motxilak bere bizkar gainean jarraituko du, bere anaia eta arreba ihes eginda daude, edozein unetan atxilo ditzakete, eta bere inguruan ere poliziaren itzal etengabea sumatuko du.

Nobela, batez ere, Xabi Ugarte protagonistak bere buruarekin duen gatazkaren kontakizuna da, Euskal Gatazkak jende batengan sortzen duen minari buruzko nobela bat. Patua, *boterekeria*, gezurra eta gatazkaren erretagoardia dira narrazioaren giltzarri. Izan ere,

**JAKIN-MINA SORTU,
HAUSNARKETA ESKAINI
ETA EMOZIOA
ERAGINGO DIO
IRAKURLEARI**

Xabi Ugarteri gertatzen zaizkion gauza inportanteenak boterearen gezur baten ondorio dira. Erretagoardian dauden emakumeei ere berebiziko garrantzia emango die errenteriarrak narrazioan; izan ere, sarritan abangoardian daudenak baino zer kontaktu handiagoa izaten dute erretagoardian dauden emakumeek.

350 orrialde inguruko nobela da, arrapaladan irakurtzeko modukoa. Elkarriketa sarri eta sinesgarriek, esaldi laburrek, ahozkotik hurbileko hizkuntzak edo gertakarien harian tartekatutako hausnarketek markatzen dute kontakizunaren erritmoa. Asmatu du egileak, bestalde, kontatzen diren gertaerak gordinak izanagatik, tonu anitza ematen narrazioari: drama eta tragedia badago, baina baita bitalismoa, umorea eta lotsagabekeria ere, eta horrek aberasten du testua. Nobela betea da *Faith*. Irakurtzen gozatzeko nobela; izan ere, jakin-mina sortu, hainbat hausnarketa eskaini eta emozioa eragingo dio irakurleari. ■■■

Aditua



ANDER INTXAURRONDO

Prezioen gorakada, prekaritatea, klima aldaketa... Etengabea da bide ezberdinetatik egunero jasotzen ari garen albisteen jarioa, eta horietatik, mezu negatiboak edo ezkorrak izaten dira, orokorrean, gailentzen direnak. Eta informazio mota hori, gu konturatu gabe ere, poliki-poliki arrastoa uzten joaten da gure buruan, ziurgabetasuna, beldurra edo antsietatea sortuz. Gure pentsaera eta jokaeretan, inkontzienteki, eragina izango du. Hala diote adituek, behintzat.

Baina nire psikeak beste informazio negatibo mota bat ere jasotzen du, kanpotik etortzen zaidan hori baino kaltegarriagoa eta erasokorragoa askotan, nire bizitzeko eran ikaragarritzko eragina duena: nire barne elkarriketa. Kanpotik iristen zaidan informazioarekin alderatuz, zeinetan nire eragiteko ahalmena hutsala den, mezu horiek nireak dira, nik sortzen ditut, neurekin

daude eta egongo dira hil artean, eta horiez jabetu beharra daukat nolako kaltea egiten didaten ohartzeko. Horretan izan behar dut aditua.

Batzuetan goxo, baina beste askotan erasokor, nagusikeriaz, epaile errukigabe baten modura iristen zait neure barne ahotsa: ausartagoa izango banintz!; zer gorputz amorfoa daukadan; ergela naiz; nola egin dut hori hain gaizki?; nik ez dut balio; itsusi ikusten naiz... Eta segi, eta segi. Etengabeko neureganako indarkeria, ni benetan naizen hori onartu beharrean nik izan nahiko nukeen Ni ideal horren bila. Ez banaiz horretaz jabetzen eta denboran luzatuz joaten bada, pixkanaka autoestimua eta barne konfiantza higitzen joango zaizkit, nire sistema immunologikoan eraginez eta gaixotasunari bidea irekiz.

Errespetatzen dut neure burua? Maite dut neure burua? Beti eredugarria izan behar dut? Guztiarekin ahal dudala

uste dut? Edo biktimaren papera betetzen bizi naiz? Zer helbururekin? Zeri diot beldurra? Zerk sumintzen nau? Arazoak ezkututzen saiatzen naiz?... Ehunka galdera egin ditzaket, ez guztiak erantzuten errazak, baina horietan sakonduz bakarrik lor dezaket neure buruan aditua izateko katedra. Gizarte *hiperlanpetu* eta zorrotz honetan lan nekeza da neure barne ahotsari tarteka entzutea, baina ni neu ezagutzen noan heinean eta naizen bezalakoa onartzen, nire bertute eta miseriekin, nire kontraesan guztiekin, nire pentsamendu ilunenekin, orduan agian hasi ahalko dut neureganako beste diskurtso bat eratzten.

Errekarriak bezala, ezinbestean besteekin harremanetan izango ditudan kontaktu eta marruskadurekin joango naiz pertsona bezala hazten eta benetan Ni naizen modura pixkanaka mundura azaltzen. Astiro-astiro. Begiratu. Errespetatu. Onartu. ■■■



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ▪ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

Jarraitu geziari



JUAN LUIS ROMATET

Turismo hiritarra dut gustuko; ez mendia, ez hondartza: hiria. Ezagutzen ez dudan hiri batera joan eta hango kaleetan galdu: ezkerrera, ezkerrera, aurrera, eskuinera, ezkerrera, eskuinera... Listo, galdu naiz. Hor hasten da gozamina. Kaleetan zehar ibili, liburu eta disko dendetan sartu, terraza batean eseri zerbait hartzeko eta jendea/bizitza pasatzen ikusi.

Ekainean Valentziara joan nintzen egun batzuk pasatzera. Berez, ez ninduen hiriak batere erakartzen, baina inoiz egon ez nintzenez, eta, onar dezagun, hegaldi merke bat agertu zitzaidanez radarrean, han joan nintzen... Bero bolada baten erdi-erdian. Ez dut beroa ondo jasaten, baina haraino joanda ez nintzen, bada, hotelean geratuko. Kalera atera behar nuen galdu eta hiria ezagutzeko.

Lehen egunean lortu nuen; bigarrean ez hainbeste, baina hirugarrean bai, eta nola, gainera. Helburu jakin batekin atera nintzen hoteletik egun hartan: kutsu arrantzalea duen El Cabanyal auzunea bisitatzea. Ostatutik kilometro batzuetara zegoenez, pentsatu nuen hobe zela biderik zuzenena hartzea. Google Maps aplikazioan begiratu ondoren, auzunera ia zuzen-zuzen eramaten zuen etorbidearen bila hasi nintzen. Arazoa? Ez nuela aurkitu, nahiz eta, aplikazioaren arabera, nire hoteletik oso urruti ez zegoen. Eta han hasi ziren komeriak: kale batean aurrera egin; eskuinerantz joan pentsatuaz itsasoa handik egongo zela; itsasorik aurkitu ez; atzera egin; ezkerrera gero; aurrera ondoren; "auskalo non demontre nagoen" pentsatu; mugikorrera heldutako mezu batzuk erantzun; ura edan; bide itsusi batetik jarraitu; mugikorrean Google Maps berriro jarri eta ikusi aurrera egin dudala, baina ez nik uste bezainbeste; beroagatik maldizioka hasi; desesperatu; zerbeza pare bat edatea deseatu; aplikazioa berriro martxan jarri; segi bidean aurrera, eta, halako batean, heldu nintzen helmugara. Auzunera heltzeko behar izan nuen denboran Livingstone doktorea Afrikaraino helduko zatekeen.

Betidanik gustatu izan zaizkit mapak: atlasetan ibaiak, hiriak edo dena delakoak aurkitzea nuen denbora pasa txikitan, baina, bizitza errealean, norabideei jarraitzeko arazoak ditut, eta galdu egiten naiz galdu behar ez dudanean; ez naiz gai Google Mapeko geziak erakusten duen bideari jarraitzeko. Ustez bide onetik joango naiz, eta gero konturatuko naiz kontrako bidea hartu dudala. Azkenean, sistema klasikoa erabili behar izaten dut: albotik pasatzen denari galdetu.

Esan izan didate Google Mapek ez duela hain ondo funtzionatzen oinezkoen kasuan, baina pisuaren alde batean puntako teknologia jartzen badugu eta, bestean, nire neuronon abilezia, beldur naiz erantzuna ez ote dudan oso gustuko izango. ■■■

**EZ DUT BEROA ONDO
JASATEN, BAINA
HARAINO JOANDA, EZ
NINTZEN, BADA,
HOTELEAN GERATUKO**

Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



Casa BASUSTA

LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com



Muniosoro erretegia

Euskal sukaldaritza



Eguneko menua Astelehenetik ostiralera 10,50 eurotan
Sukaldaritza tradizionala eta egur ikatz parrila

Muniosoro 54, Oikia - ZUMAIA
943-14 78 91